

BEZEROA: ERRENERIAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE ERRENERIA



Errenteriako Udala
Ayuntamiento de Errenteria

TXOSTEN TEKNIKOA


ERRENERIAKO ZONAKATZE AKUSTIKOA



Dokumentu zbk: 160366Rev2

Data: 16.09.26

Orrialdeak hau kontuan izanda: 12 + Eranskina




AAC Acústica + Lumínica

Parque Tecnológico de Álava
01510 MIÑANO (VITORIA-GASTEIZ)

Tf. 945 29 82 33 Fx. 945 29 82 61

aac@aacacustica.com - www.aacacustica.com



ALDAKETA-KONTROLA

Berrikustea	Data	Helburua

TXOSTEN TEKNIKOA

ERRENTERIAKO ZONAKATZE AKUSTIKOA**exp.: 16014****dok.: 160366Rev2 ASM / ABI****data: 16.09.26**

Bezeroa: **ERRENTERIAKO UDALA**
Herriko plaza z/g
20100 ERRENTERIA (GIPUZKOA)

Eskatzaile: D. Nikolas Bengoetxea (*ingurumena.energia@errenteria.eus*)

LABURPENA

Lan honen helburua, Errenteria udalerriko zonakatze akustikoaren proposamena egitea da.


Zonakatzea, 213/2012 Dekretuko III. eranskinaren gomendioei jarraituz egin da, lurraldea hurrengo tipologiak sailkatuz:


- a) bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak,
- b) industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak,
- c) jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak,
- d) aurreko paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak,
- e) osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak, hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar dutenak,
- f) garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo haiek behar dituzten beste ekipamendu publiko batzuek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak,
- g) gaia arautzen duten legeetan babespekotzat jotako eremu natural diren lurralde-esparru edo -sektoreak eta hots-kutsaduraren kontra modu berezian babestu behar diren eremu naturalak.

Horrez gain, egindako zonakatzearen proposamenarengatiko trantsizio-eremuak sortu dira.

Miñano, Vitoria-Gasteiz, goiburuko data

VºBº

**Alberto Bañuelos Irusta****Ainhoa Suso Mendizabal**



1. Helburua

Errenteriako udalerriaren zonakatze akustikoaren aurkezpena; Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuan, urriaren 16koan, ezarritako seinaleen arabera definituta

2. Justifikazioa

Udalerri bateko **zonakatze akustikoak** bere lurraldean kalitate akustikoko helburuak (hemendik aurrera KAH) aplikagarriak markatzen ditu. Area akustikoko mugaketan oinarritu behar da, egungo eta etorkizuneko lurzorua erabilera nagusiak kontuan izanda, 213/2012 Dekretuko III. eranskinaren gomendioei jarraituz.

Zonakatze akustikoak, urbanizatutako eremuei eta etorkizuneko garapenei eragingo die, lurzorua erabilera nagusiak kontuan izanda.

Zonakatze akustikoan, 213/2012 Dekretuaren arabera, kontuan hartzen diren area akustikoak hurrengoak dira:

- a) bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak,
- b) industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak,
- c) jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak,
- d) aurreko paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak,
- e) osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak, hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar dutenak,
- f) garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo haiak behar dituzten beste ekipamendu publiko batzuek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak,
- g) gaia arautzen duten legeetan babespekotzat jotako eremu natural diren lurralde-esparru edo -sektoreak eta hots-kutsaduraren kontra modu berezian babestu behar diren eremu naturalak.

KAH-ak area akustikoaren eta dagoen area edo garapen berria izatearen arabera ezartzen dira; garapen berriztat honakoa ulertuz:


Etorkizuneko garapena: hirigintzako edozein jarduera, baldin eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, bere 207. artikuluko b) idatz-zatian aurreikusitako lizentzia beharko duen lan edo eraikuntzaren bat egitea aurreikusten bada.

Beraz, zonakatzeak, etorkizuneko garapenen eta egun dauden area akustikoen artean bereizi behar du, 213/2012 Dekretuko III. eranskinean ezarritako gomendioak ahaztu gabe.

Area akustiko hauetaz gain, lurraldeko beste eremu batzuk ere badaude. Hauek ez dira area akustikoak bere baitan, baizik eta zonakatzearen kudeaketa baimentzen duten tresnak. Honakoak dira:

- Azpiegitura autonomikoaren zortasun akustikoaren eremua: erkidego- edo foru-eskumeneko garraiobide-azpiegitura bati lotutako lurralde-zerrenda, azpiegitura horren inpaktu akustikoaren gehienezko maila irudikatzen duena eta azpiegituraren funtzionamendua lurzoruaren erabilerekin bateratzen laguntzeko balio duena.
- Estatu azpiegiturako zortasun akustikoko eremuak: zarata-mapetan, immisioek kalitate akustikoaren area akustiko egokiei aplikatzeko moduko helburuak gainditu ahal izango dituzten eta murrizketak lurzoruko, jardueretako, instalazioetako edo eraikuntzetako erabilera jakinetarako ezarri ahal izango direnetan, mugatuta asmoz, gutxienez, balioek haietarako ezarritako immisio-mugak bete.
- Hiriko eremu lasaia: a) edo e) motako eremu akustikoko esparrua, bere kalitate akustikoko helburuak betetzen dituen eta bere ezaugarri edo erabilerarengatik hots-kutsaduraren aurreko babes gehiago behar duena.
- Etorki naturaleko soinuaren erreserba: g) motako eremuen multzoan sailkatutako espazioak; espazio horietako soinuak hots-kutsaduraren aurrean zaindu beharrekoak dira, bai beren kultura- edo natura-balio berdingabea dela medio, bai beste zarata-iturri batzuen aurrean duten garbitasuna edo gardentasuna dela bide.
- Trantsizio akustikoko eremua: bi eremu akustiko mugakide elkartzen diren lurren zonakatzea kudeatzeko zedarritzatu den lur-zerrenda, baldin eta eremu horietako kalitate akustikoko helburuen artean 5 dBA (A dezibelio) baino gehiagoko aldea badago. Trantsizio-eremuek 100 metroko esparrua hartzen dute, bi eremu akustikoek bat egiten duten mugaren alde banatara. Egoera akustikoaren kudeaketak hala eskatzen badu, administrazio eskumendunak trantsizio akustikoko eremuaren mugarritzapen geografikoa zabal dezake.

Azken eremua izan ezik, gainerakoak zonakatze akustikoko tresnetara gehitu beharko da.




3. Zonakatze akustikoa

Zonakatze akustikoak, zonakatze osoko eta udalerriko indarrean dagoen Hiri-Antolamenduko Plan Orokorreko planoetan jasotako lurzoruaren sailkapena kontuan hartzen du, eta 213/2012 Dekretuko III. eranskinean ezarritako ildoak aplikatuz zehaztu da. Horrela, Errenteriako zonakatzea osatzen duten area akustikoak, hurrengoak dira:

- **a) motakoa. Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde esparru edo sektoreak.**

Area honek hirigune gehiena biltzen du, hurrengo auzoak barnean sartuz: Sorgintxulo, Kaputxinoak, Ondartxo, Iztieta, Alaberga, Olibet, Etxeberrieta, Gabierrota, Beraun, Galtzaraborda, Pontika, Igantzi, Gaztaño, Agustinak, Gaztelutxo eta Fanderia, Markola, Lartzabal, Sagardiburu, Azañeta, Añabitarte, Zamalbide eta Zentolen-eko areaz gain. Area akustiko honen barruan, hiriko sarean dauden hezkuntza eta kultur erabilerako eraikin batzuk ere badaude. Hori egitearen arrazoia hauen azalera txikia da, lurraldea gehiegi ez zatitzeko, 213/2012 Dekretuaren III. Eranskinak markatzen duen moduan 2. Puntuko c) paragrafoan. Hauetaz gain, parkeak, lorategiak eta erabilera egonkorreko oinezkoen guneak ere sartzen dira.
- Etorkizuneko bizitegi-erabilerako hirigintza-garapenak beste area mota batean bereizten dira. Area akustiko honi horrela esaten zaio: **etorkizuneko a) motakoa. Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak. Garapen berria.** Area akustiko honetan lurzoru urbanizagarritan dauden etorkizuneko bizitegi-garapenak sartzen dira, hala nola: Alzate, Esnabide, Gamongoa, Palaziozarra/Larretxipi, Perutxene, Sagasti, Zamalbide berri eta Tolare berri.
- **b) motakoa. Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde esparru edo sektoreak.** Eremu honetan, udalerrian dagoen portuko zatia sartzen da, hurrengo industrialdeaz gain: Txirrita/Maleo, Masti/Loidi, Egiluze, Aranguren, Egiburu, Egiburuberri eta Papresa.
- Etorkizuneko industrial hirigintza-garapenak beste area mota batean nabarmentzen dira. Area akustikoko mota honi horrela deitzen zaio: **etorkizuneko b) motakoa. Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde esparru edo sektoreak. Garapen berria.** Area honetan lurzoru urbanizagarritan dauden etorkizuneko industrial hirigintza-garapenak sartzen dira, hala nola: Urkiola.



c) motakoa. Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde esparru edo sektoreak. 213/2012 Dekretuak ezartzen duenez, tipologia honek nahiko handiak diren kirol-jardueretarako areak biltzen ditu; Errenteriako kasuan: Fanderiako kirol-gunea.

e) eredukoa. Osasun, hezkuntza eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde esparru edo sektoreetarako zehaztutakoekin. Don Bosco ikastetxea dagoen eremua area akustiko honetan sailkatu da, Basanoaga/Sorgintxulo-rekin batera, eta Langaitz eta Añabitarteko esparruekin.

g) eredukoa. Hots-kutsaduraren kontra modu berezian babestu behar diren eremu naturalak. Eremu akustiko honetan Lau Haizeta eta Aiako Harriak Parke Naturalak sartzen dira.

Zonakatzean, area hauetaz gain, beste motatako area gehigarria sartzen da, zeini ez zaio kalitate akustiko helbururik aplikatzen:

- **f) eredukoa. Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurralde esparru edo sektoreak,** HAPO-an agertzen diren eremuak dira. Haietan, kale eta errepideetarik garrantzitsuenak daude: GI-636, GI-20, AP-8 eta AP-1, ETS eta ADIF-eko burdinbideez gain.

Zonakatze hau berrikusiko da plangintza orokorrean aldaketak, berrikusketak edo moldaketak egiten badira edo, gehienez, 10 urteko epean, bere onarpena eman ondoren.

Plangintzaren aldaketak, berrikusketak edo moldaketak lurzoruaren erabileran aldaketak behatzen badituzte, area akustikoetan beharrezko moldaketak egin beharko dira.

Eranskinean udalerriko zonakatze akustikoa jasotzen da.

4. Kalitate akustikoko helburuak

Kalitate akustikoko helburuak (KAH), Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuan, urriko 16koan, ezartzen dira.

Dekretu honek KAH-ak markatzen ditu hiru zarata-indizerako: L_d , L_e eta L_n -rako. Indize hauek urteko batez besteko mailak adierazten dituzte, eguneko (7 – 19 h), arratsaldeko (19 – 23 h) eta gaueko (23 – 7 h) aldietan; ingurumeneko foku guztiak kontuan hartuz eta udalerriko zonakatze akustikoaren arabera (aurreko puntuan esanda).

Errenteriako udalerrientzat kanpoaldeko kalitate akustikoko helburuak, udalerriko zonakatzean ezarritako area akustiko bakoitzarentzat, hurrengoak dira;

AREAKO MOTA	ARAEA AKUSTIKOA	KALITATE HELBURUAK	
		L_d / L_e (dB(A))	L_d / L_e (dB(A))
A	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	65	55
Etorkizuneko A	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak. Garapen berria	60	50
B	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	75	65
Etorkizuneko B	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak. Garapen berria	70	60
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	73	63
E	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hotskutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin	60	50
G	Gaia arautzen duten legeeten babespeko jotako eremu natural diren lurralde-esparru edo -sektoreak eta hots-kutsaduraren kontra modu berezian babestu behar diren eremu naturalak	60	50

Oharra: KAH hauek lurretik 2 metroko garaiera neurtuko dira eta leihodun fatxaden kanpoko aldean, berriz, eraikinaren altuera guztietan neurtuko dira.

Zarata-maparen emaitzen ebaluazioarentzat, KAH-ak lurretik 4 metroko garaiera erreferentziatuko dira.

Kanpoaldean adierazitako kalitate akustikoko helburuez gain, 213/2012 Dekretuak etxebizitza-, bizitegi-, osasun-, hezkuntza- edo kultura-erabileretara bideratutako eraikinen barruko aldeko esparru bizigarriari KAH aplikagarriak ere mugatzen ditu

ERAIKINAREN ERABILERA	ESPARRU MOTA	KALITATE HELBURUAK	
		Ld (dB(A))	Ln(dB(A))
Etxebizitza edo bizitegi-erabilera	Gelak	45	35
	Logelak	40	30
Ospitalea	Egonguneak	45	35
	Logelak	40	30
Hezkuntza- edo kultura-erabilera	Ikasgelak	40	40
	Irakurketa-gelak	35	35

(1) Eremuaren barruko aldera iristen diren zarata-foku guztien (hots, eraikin beraren edota ondoko eraikinetako instalazioen, barruko aldera heltzen den inguru-zarataren) immisio-indizeari dagozkio B taulako balioak.

(2) Eraikinaren erabilera benetako erabilerari dagokio, hau da, ezarritako ordutegietako baten barruan eraikina erabilera horietarako baliatzen ez bada ez zaio dagokion kalitate akustikoko helburua aplikatzen.

Oharra: barnealdean aplika daitezkeen kalitate akustikoko helburuek 1,2 eta 2,5 metro arteko garaierara neurtuko dira.

Area akustiko baten barruan babes akustiko zorrotzagoak daukaten erabilerak badaude, erabilera sentikorretan dauden hartzaileek, erabilera sentikorrei dagokienez KAH-ak bete behar dituzte. Adibidez, a) motako eremu bizitegi-erabilera batean dauden ikastetxeak.

5. Lurraldeko beste eremu batzuk

Esan denez, Dekretuak udalerriko zonakatze akustikoan sartzen diren eremuez gain, beste lurralde eremuak sartzen ditu. Beste eremu hauek ez dira area akustikoak bere baitan, baizik eta zonakatzearen kudeaketarako tresnak.

Errenteriako udalerrian, gaur egun, hurrengo hauek daude:

Zortasun akustikoko eremuak (ZAE):

Dokumentu hau idazten denean, bakarrik ETS-ko burdindideetako Zortasun Eremu Akustikoa (ZAE) mugatuta dago.


Beste azpiegiturek (GFA-ko errepideek eta ADIF-eko trenbideak) oraindik ez dituzte adierazi haien zortasun akustikoko eremua (ZAE). Hala ere, ZAE hauek adierazten dituztenean, Errenteriako zonakatze akustikoko planoan sartuko dira, udalerriko zarataren kudeaketa eraginkorrerako.

Trantsizio akustikoko eremuak


Bi eremu akustikoen bat egiten duten mugaren alde banatara 100 metroko esparrua, haien kalitate akustikoko helburuen artean 5 dB(A) baino gehiagoko aldea dagoenean.

Errenteriako udalerrian, trantsizio akustikoko eremuak adierazi diren egoerak, hurrengoak dira:


- a) motako eremuak, bizitegi-erabilerakoak eta etorkizunekoak eta b) motako eremuak, hezkuntza-erabilerakoak, b) motako eremuekin (industria-erabilerakoak) mugakideak:




TE_1 – Papresa




TE_2 - Txirrita/Maleo



TE_3 - Aranguren



TE_4 - Egiburuberri/Zentolen




TE_5 -Egiburuberri/Añabitarte


- a) motako eremuak, bizitegi-erabilerakoak c) motako eremuarekin (jolaserako eta ikuskizunetarako erabilerakoa) mugakidea:



TE_6 -Fanderia



I. ERANSKINA. ZONAKATZE-PLANOA



**ELABORACIÓN DEL MAPA DE RUIDO
DEL MUNICIPIO DE ERRETERIA
ERRETERIAKO ZARATA MAPAKO ELABORAZIOA**






ERRETERIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA

ZONIFICACION ACUSTICA / ZONAKATZE AKUSTIKOA: ERRETERIA

Legenda

- Residencial / Bizitegi-erabilera
- Residencial futuro / Etorkizuneko bizitegi-erabilera
- Industrial / Industria-erabilera
- Industrial futuro / Etorkizuneko industria-erabilera
- Docente / Hezkuntza-erabilera
- Recreativo y Espectáculos / Jolaserako eta ikuskizunetarako
- Espacios naturales / Erema naturalak
- Infraestructuras / Azpiegiturak

Escala 1:15000